

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Ruben Fuertes Mikel Aranbururen ordezk

MIKEL ARANBURUK Nafarroako Gobernuaren Euskarabideako Aholkularitza eta Ikerketa Zerbitzuko zuzendari kargua utzi zuen uda aurretik. Xabier Azanza erakundeko zuzendari kudeatzailearekin desadostasunak zituela agerian geratu zen. Aranbururen ordezkia izango da Ruben Fuertes. Orain arte euskara irakasle aritu da Nafarroako hainbat herritan.

Nafarroako ikerketa soziolinguistikoa urte bukaerarako

ABUZTUAN gogor ekin dio lanari Nafarroako Gobernuak –ez dakigu berdin segiko duen aurrerantzean–.

Ruben Fuertes Mikel Aranbururen ordezkio jartzeaz gain, Gobernuak ohartarazi du urte honen amaierarako ikerketa soziolinguistikoa egingo dutela. Lan horren ardura Ikertalde enpresarena izango da. Enpresa horrek berak 2006an Iruñerriko azterketa egin zuen.

Euskarabideak emaitzak urtea amaitu aurretik Nafarroako Parlamentuari aurkeztu beharko dizkio. Orain egingo duten ikerketaren kostua 52.780 eurokoa da. Nafarroa osoko aurreko ikerketa 2003an egin zen.

Haurrekin euskaraz aritzeko kanpaina Bilbon

KANPAINAREN IZENA DA “Euskereagaz gure etxea eregitzen”. Mezua 2006

eta 2007 urteetan haurrak izan dituzten gurasoei zuzendua dago eta etxean euskaraz aritzeak duen garrantziaz jabeak nahi dituzte. 6.000 eskuorri banatuko ditu Bilboko Udalak.

BAHEA

Arantxa Etxabarr abokatuak EAEko hizkuntza politikaz idatzi du www.boltxe.info webgunean. “Zortzi uste oker euskararen normalizazioaz” du izena artikulua: “Kontzeptu batek baino ezin du definitu hizkuntza politika: hizkuntz eskubideak. Hankasartzea da euskararen normalizazioa adostasunarekin eta borondatearekin lotzea. Badakit esan dudana politikoki ez dela zuzena, baina horrela da. Araudi zehatzik gabe Elebidek ere ez dizkigu bermatzen eskubideak, eta horrelaxe dabil. Politika egokia lortzeko ezinbestekoa da araua eta diru-laguntza orekatzea.

Euskararen gaur egungo arazoa da dakitenek ez dutela hitz egiten. Mezu horrekin bondardatzen gaituzte. Instantzia guztietatik eskatzen zaio euskal hiztunari euskaraz egiteko, eta azpimarratzen da, orain bereziki irmo, euskararen egoeraren erantzule, neurri handi batean, euskaldunen utzikeria dela. Alabaina, Behatokiak milaka adibide jaso ditu urtetan eta duela gutxitik Elebidek ere bai (hizkuntz eskubideak “bermatzeko” erakunde ofiziala); euskara egin nahi eta ezin duten herritarren kezak jaso dituzte. Agerikoa da hizkuntza erabiltzeko aukerak oso lotuta daudela hiztun kopuruarekin, hau da, zenbat eta hiztun gehiago orduan eta hitz egiteko aukera gehiago. Bada, erabilera datuek sinetsi nahi digutenaren kontrako adierazten dute: euskal hiztunak aukera daukanean euskaraz egiten du.

Esan ditzagun gauzak diren bezala: euskara dakitenen kopuruak nabarmen gora egiten ez badu bidegabea eta ez-morala da euskararen egoeraren errudun jotzea euskal hiztunak”.

TALAIAN

Garoña eta “gertaera” nuklearrak

Kataluniako Ascó eta Vandellóseko zentral nuklearrek eta Garoñakoak Burgosen, azkenaldian hainbat “gorabehera” izan dituzte. Endesa-Iberdrola jabeek ziurtatu dute “garrantzirik gabeko gertaera hutsalak” izan direla. Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak esan du Ascóko isuri erradiaktiboa aitortutakoa baino ehun aldiz handiagoa izan zela. Gainera, zentralak kutsadura martxoaren 14an antzeman zuen estreinakoz, eta ez zuen jakitera eman. Apirilaren 4an eman zuen ihesaren berri, baina garrantzirik gabekoa izan zela esan zuen; azkenean ehun aldiz handiagoa suertatu zen. Vandellós eta Garoñako “gertaerak” herritarren segurtasunerako garrantzirik ez dutela izan baieztatu dute. Lehen ere hala esan izan dute.

Egoera horretatik hainbat lezio ikasi behar dugu Garoñako zentralaren ekintza eremuaren pean bizi garenok. Lehenengoa: politika nuklearra justifikatzeko, enpresa energetikoak (nuklearren jabe direnak) beti edozein irregulartasun edo arazo ezkututzen saiatzen dira. Behin “gertaera”ren berri zabaldu denean, garrantzia ahalik eta gehien murrizten ahalegintzen dira. Horregatik, enpresa nuklearrek, horrelako “gertaerak” daudenean, ia beti gezurrak esan eta manipulatu egiten gaituzte. Bigarrenik: “gertaera” nuklear horiek argitara ematen direnean, energia nuklearraren aldekoek eta euren lobbyek beren aldarrikapenak berpizten dituzte, eta zentralak mantentzeko manipulazio kanpainari berrekiten diote. Azkenik: euskal gizartea Garoñako zentral nuklearraren arrisku eremuan bizi da. Hori dela eta, 2009tik aurrerako esplotazio luzapenaren aurka egiteko kontzientzia hartu beharko da. Iragan igandean Garoñara egin zen martxak erakusten du bidea.

Juan Mari Arregi